

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide **fisikoak** proiekturako ezinbestekoak dira, eta horien artean sartzen dira josteko materialak, hala nola ehunak, hariak, iman bereziak eta probetarako ereduak. Ekoizpen-tresneria ere beharrezkoa da, josteko makina, mozteko tresnak eta prototipoak egiteko tailer txiki bat barne. Materialak eta amaitutako produktuak gordetzeko biltegiatze-gune bat ere ezinbestekoa da, eta banaketa-materialak, hala nola paketeak, etiketak eta bidalketa-materiala ere kontuan hartu behar dira.

Baliabide **intelektualak** barne hartzen dute diseinu-ezagutza, proiektuaren erraztasun, irisgarritasun eta ergonomia kontuan hartuta, eta prototipoen garapenak; imanen kokapena, erresistentzia eta erabilgarritasunaren testak barne hartu behar ditu. Marka eta identitate bisualaren aldetik, logotipoak, karpetak eta azalpen-orrialdeak sortzea garrantzitsua da, eta irisgarritasunaren inguruko ezagutza ezinbestekoa da desgaitasun fisiko ezberdinen beharrei egokitzeko.

Giza baliabideak dira proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoak, eta taldekideek ideiak sortzea, diseinua, komunikazioa eta antolaketa egitea beharrezkoa dute.

Aholkulariak eta adituak ere parte hartzen dute, hala nola, erizainak, terapeuta okupazionalak edo zaintzan aritzen diren profesionalak, baita jostun profesionalek ere. Bezzeroen *feedback*-a jasotzea ere garrantzitsua da, probak egiteko erabiltzaile boluntarioen laguntzarekin, adibidez, mugikortasun murriztua duten pertsonak edo zaintzaileak.

Finantza-baliabideak barne hartzen dute hasierako aurrekontua, prototipoak egiteko materialak, ekoizpen kostuak (ehunak, iman bereziak eta josteko lanak) eta promoziorako gastuak (webgunea, sare sozialak, kartelak edo aurkezpenak). Finantzaketa iturriak taldearen ekarpenak eta diru laguntzak izango dira.

BIBLIOGRAFIA

STARTInnova. (s. f.). <https://araba.startinnova.com/index.php?idioma=eu&action=logout>

Design.com. (2026, 7 enero). *Creador de logos | crea un logo gratis al instante.*

<https://www.design.com/es-es/creador-de-logos>

Unibertsitatea, M. (s. f.). *Grado en Liderazgo Emprendedor e Innovación.* Mondragon Unibertsitatea.

<https://www.mondragon.edu/es/grado-liderazgo-emprendedor-innovacion>

Como crear una empresa - Empleo. (s. f.). Basque Administration Web Portal.

<https://www.lanbide.euskadi.eus/informacion/como-crear-una-empresa-5/weblan00-empleo/es/>